

## GOBERNU BATZARRA

2016. 02. 22

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko otsailaren hogeita bian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peón Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar</b>	
<b>Idazkaria:</b>	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-Liburutegiko laguntzaileen zerbitzua kontratatzeko irekitako prozeduraren esleipen proposamena.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	3.-Udal politiketan generozeharkakotasuna txertatzeko estrategia berreztea.
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	4.-Kontuhartzaile lanpostua betetzeko konkurtso arruntaren oinarri espezifikoak onartzeko akordio proposamena.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	5.- Adif Tolosako lursailaren alokairuari buruzko kontratua. 6.- Bizibiziki, S.L., eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmen proposamena, aktibatu 2016 (Natura Turismo aktiboa) jardunaldiak diruz laguntzeko. 7.-Tolosako “Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko obraren esleipena.- Adjudicación de las obras “Arreglo de cubierta y ventanales del edificio del ferial” de Tolosa. 8.-47/2015 eta 1/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko otsailaren 3an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Liburutegiko laguntzaileen zerbitzua kontratatzeko irekitako prozeduraren esleipen proposamena.**

Aurtengo otsailaren 3an, kontratazio mahaia bildu zen, liburutegiko laguntzaileen zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko esleipena baloratzeko.

Zerbitzu arduradunaren txostena ikusi da, baita bertan azaltzen diren kriterio objektibo eta subjektiboak ere.

Aipatutako kontuan izanik, eta Mahaiak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Eusko Eki, S.L.ren alde egitea goian aipatutako kontratazioa, orduko 20,82€ko prezioan.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura departamentuari eta interesatuari.

### **3.- Udal politikan genero-zeharkakotasuna txertatzeko estrategia berreztea.**

Udal politikan genero-zeharkakotasuna ezartzeko eta sustatzeko proiektua 2013ko uztailaren 23ko Osoko Bilkuran onartu zen. Aldi berean, barne arautegi bat ere onartu zen, proiektua garatzeko, haren jarraipena egiteko lan-batzordeak sortzeko eta batzorde horien eginkizunak ezartzeko.

Lan-ildo hau hasieratik bertatik jo zen epe labur, ertain eta luzeko prozesutzat, eta bere helburua da beharrezko gestio, administrazio eta egitura baldintzak sortzea, horrela, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko politika publikoen diseinuan eta garapenean. Eta azken helburua da emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzea.

Horren harira, proiektu honen barruan, 2013. urtetik gaur egunera garatu diren jarduerak, besteak beste, hauexek izan dira:

- Galdetegi baten bidez, Udaleko departamentu bakoitzean zeharkako neurrien diagnostiko bat egin da.
- Lan eta sentsibilizazio saioak egin dira udal departamentuekin, modu individualizatuan, eta hauek proposatutako jarduketekin bi urterako ekintza-plan bat adostu da.

- Lan bilerak IZFErekin, bere informatika-aplikazioetan sar zitzan sexu, adina eta jatorriaren aldagaiak, hizkera ez-sexistaren erabilera sustatzeko asmoarekin.
- Lan-saio bat kontratazio-mahaiarekin, kontratazio-pleguetan berdintasun irizpideak eta klausulak sistematikoki txertatzeko. Honen harira, azterketa bat egin da ikusteko berdintasun irizpideak jaso diren edo ez 2014 eta 2015eko kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzen pleguetan, eta horren inguruan diagnostiko bat egin da. Gaur egun, kontratazio mahaiarekin beste saio bat izan dugu eta, dekretu baten bidez, onartu da Udaleko kontratazio-pleguetan sistematikoki sartzea minimoak diren berdintasun irizpideak (berdintasun legeak jasotzen dituenak). Aipatutako irizpideak, kontratu guztietan jartzeko eskatuz, elarazi zaizkie departamentu guztiei.

Aipatutakoa kontuan izani, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Proposamen honen helburua berrestea, bai eratu ziren lan-batzordeak eta horien funtzioak, baita orduan hartu zen konpromisoa, genero-zeharkakotasunaren estrategia aurrera eramateko.

**BIGARRENA.**- Jakinaren ganean geratzea, 2016ko otsailaren 17an egindako dokumentua Berdintasun Batzordean onartu zela.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea interesatuei.

### **4.-Kontuhartzaile lanpostua betetzeko konkurtso arruntaren oinarri espezifikoak onartzeko akordio proposamena.**

Bi mila hamabigarren urtean kontuhartzaile plaza hutsik geratu zen: honela, legeak ezarritakoaren baitan, lanpostu hauek lehiaketa bidez hornitzen dira eta eskuduntza hauen izapidetza bideratzeko Foru Aldundiak du.

Aldundiak bidalitako idatziaren baitan, aipatu Estatu mailako gaikuntza estatuala duten Toki Administrazioako funtzionarien lehiaketa arrunta ateratzeko udalari merezimenduak baloratuko dituen oinarriak igortzeko eskaera egin du. Udalak, bere aldetik, aipatu plazaren oinarri espezifikoak onartzeko proposamena egin du.

Ikusirik aipatu aurrekariak eta legeak emandako eskumenak kontuan hartuz, baita ere Giza Baliabide saileko arduradunak egindako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Udaleko Kontuhartzaile lanpostua betetzeko oinarri espezifikoak onartzea, Estatu mailako gaikuntza duten Toki Administrazioako funtzionarien lehiaketa arruntaren deialdian parte hartzeko.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Giza Baliabide departamentuari eta Foru Aldundiari.

### **5.- Adif Tolosako lursailaren alokairuari buruzko kontratua.**

Soldadu kalearen bukeran, behin zubia pasa eta gero, hainbat txabola aurkitzen dira eta Adifen jabetzako lurretan eraikita daude. Txabola horiek udal baimenik gabe eraikita daude eta Tolosako Udalak eraikinak eraisteko eskaera egin dio behin baino gehiagotan ADIFI.

Abereak eta bestelako trasteak gordetzeko erabiliak izan dira beti eta osasun eta segurtasun ikuspuntu batetik oso egoera kaskarrean aurkitzen dira.

Aipatu arrazoi guztiak tarteko, bertako bizilagunak behin eta berriz kexatu dira bertako egoera jasanezinaz eta Udalari esku hartzeko eskatu diote.

Esan bezala, udal baimenik gabe eraikitako eraikinak dira eta ADIFen lurrtan kokatuta daude gehienak, bai behintzat bizilagunek eraistea eskatutakoak. Legeak ezarritako prozedura jarraituz, eta Tolosako Udaltzaingoak aipatu eraikinen erabiltzaileak identifikatu eta gero, Espainiar Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzari informazioa eman zitzaion, eta honek okupatzaileak kaleratzeko prozedura martxan jarri zuen, gerora eraikinak eraitsi ahal izateko.

Berez, ADIFen kontura izan beharko luke eraiste-kostuak (ADIFek, hasiera batean, Tolosako Udalaren kontura izan beharko lukeela adierazi bazuen ere, Tolosko Udalak errekurritu eta arrazoa eman zion Gobernu ordezkaritzak), baina ADIFek ez du batere presarik hori burutzeko, kontuan hartuz dituen trenbide kilometro kopuruak eta hauen inguruetan dauzkaten arazoek lehentasun edo priorizazio maila.

Arazoak bere horretan luze iraun zezaketela ikusita, Tolosako Udala prest azaldu zen eraiste-kostua bere gain hartzeko, beti ere ADIFek espazio ireki berria bizilagunen eskura uzteko aukera ematekotan.

Inguruko beste udalerrietan egin bezala, ADIFek lurren errentamendu akordio bat sinatzeko aukera eskaini zion Tolosako Udalari.

Errentamendu akordio honen baldintza nagusiak honako hauek dira:

- 1.- Erasandako eraikinen eraiste-kostua Tolosako Udalak bere gain hartuko luke.
- 2.- ADIFek espazio ireki berria Tolosako Udalaren esku utziko luke.
- 3.- Tolosako Udalak, espazio irekia erabiltzearen truke, urtean 300 € ordaindu beharko ditu.
- 4.- Errentamenduaren iraupena gutxienez 20 urtekoa izango da.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen, Auzo, Obra eta Zerbitzuen batzordeak egindako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Aipatutako alokairu hitzarmena onartzea.

**BIGARRENA**.- Alkateari eskatzea Udalaren izenean hitzarmena sinatzeko.

### **6.- Bizibiziki, S.L., eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmen proposamena, aktibatu 2016 (Natura Turismo aktiboa) jardunaldiak diruz laguntzeko.**

Bi mila eta hamabosteko maiatzaren 7an, Topic-en, Bizibiziki Aholkularitzak Aktibatu 2015 jardunaldia antolatu zuen. Jardunaldi honek, berrikuntza, natur turismoa eta iraunkortasunarekin erlazionatutako gaiak jorratu zituen, sektoreko profesionalei, enpresaburuei, tokiko eta eskualdeko eragile publikoei etengabeko trebakuntzarako eta dibulgaziorako elkargune bat izateko helburuarekin.

Bizibiziki aholkularitzak 2016ko apirilak 21ean berriz ere jardunaldi hau Tolosan ospatzeko proposamena egin du. Jardunaldi hau burutzeko Bizibiziki, S.L., enpresak dirulaguntza eskaera egin du. Eskatzen den dirulaguntza aurkeztutako aurrekontu osoaren %17a da.

Ikusita, Tolosan, horrelako ekimenak sustatzea oso interesagarria dela naturarekin eta iraunkortasunarekin zerikusia duen turismoa bultzatzeko eta Tolosako landa eremuaren garapenean aukera berriak aztertzeko, Gobernu Batzar honek, Ingurumen Teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorri, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Bizibiziki, S.L., enpresari 4.000 €.ko dirulaguntza ematea aipatutako jardunaldiak egiteko eta Topic-eko aretoaren alokairua Udalaren gain hartzea.

Laguntza honen truke, Bizibiziki, S.L.,ri ondorengo eskakizunak egitea:

\* Tolosako Udalaren logoa Aktibatu 2016 jardunaldiko dokumentu eta euskari grafiko guztietan azaldu beharko da.

\* Bizibiziki-k Tolosako Udalarari bost gonbidapen emango dizkio Aktibatu 2016 jardunaldian parte hartzeko.

\* Aktibatu 2016 jardunaldiaren bitartez, Tolosako eta bertako baliabide turistikoaren promozioan eragingo da.

\* Aktibatu 2016 jardunaldiaren egitarauan Tolosako landa eremuko garapenerako aplikagarriak izango diren gaiak landuko dira.

\* Dirulaguntza zurrizko ondorengo dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkio udalarari:

- Jardunaldien memoria, balorazioa eta gastuen likidazioa. Azken honek ondorengo bi dokumentu barnertu beharko ditu:

a) Diruz lagundutako jardueren diru sarrera eta gastuen balantze laburtua.

b) Orokorrean izandako diru sarrerak eta gastuen erlazio sailkatua.

- Enpresaren Gizarte Segurantzza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

**BIGARRENA**.- Aurreko konpromiso eta betebeharrak jasotzen dituen hitzarmena onartzea.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Bizibiziki, S.L., enpresari, Kontuhartzaitzari eta Ingurumen Departamentuari.

## **7.-Tolosako “Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko obraren esleipena.- Adjudicación de las obras “Arreglo de cubierta y ventanales del edificio del ferial” de Tolosa.**

Bi mila hamabosteko azaroaren 30ean ospatutako Gobernu Batzarrean onartu zen Tolosako “Ferialekuko teilatua eta leihoak konpontzeko” obrak kontratatzeko espedientea.

Lizitazio epean, honako hauek aurkeztu dira:

- \* A&G Steel Buildong, S.L.
- \* Cubiertas Pagola, S.L.
- \* Cubiertas Gutierrez, S.L.
- \* Revestimientos Metálicos Plamar, S.A.L.

Udal teknikariak, 2016ko urtarrilaren 26an txostenean dio Cubiertas Pagola, S.L., enpresak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa izan dela proposamen onena eta udalarentzat onuragarriena.

Gauzak horrela, urtarrilaren 26ko 2016/137 dekretuaren bidez Cubiertas Pagola, S.L., enpresari errekeritu zitzaion aurkezteko behin betiko fidantza egiaztatzen zuen ziurtagiria.

Otsailaren 17an aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa.

Horregatik Publikoko kontratuen Testu Bateratuaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez

La Junta de Gobierno, el 30 de noviembre de 2015, aprobó el expediente para la contratación de las obras de “Arreglo de cubierta y ventanales del edificio del ferial” de Tolosa.

Durante la licitación se han presentado los siguientes licitadores:

- \* A&G Steel Buildong, S.L.
- \* Cubiertas Pagola, S.L.
- \* Cubiertas Gutierrez, S.L.
- \* Revestimientos Metálicos Plamar, S.A.L.

Mediante informe de fecha 26 de enero de 2016, el técnico municipal considera que la oferta económica presentada por la empresa Cubiertas Pagola, S.L., es la más ventajosa y, por tanto, la más beneficiosa para el Ayuntamiento.

En base a ello, mediante Decreto de Alcaldía n.º 2016/137, de 26 de enero, se requiere a la empresa Cubiertas Pagola, S.L., la presentación de la documentación justificativa de haber constituido la garantía definitiva.

El 17 de febrero de 2016, presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del

baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta Cubiertas Pagola, S.L., enpresari adjudikatzea “Ferialekuko teilatua eta leihoak konpontzeko” obretako kontratua, hurrengo era honetan:

\* Prezioa: 137.366,58€ (BEZik gabe).

\* Exekuzio epea: 3 hilabete kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aipatu adjudikazioaren oinarri udal teknikariak txostenean jarritako arrazoiak izan dira.

**BIGARRENA.**- Aurkeztu diren lizitatzaille guztiei adjudikazioa jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.**- Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitatzaillei adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**LAUGARRENA.**- Kontratuaren formalizazioa profilean argitaratzea, adjudikaziotik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

**BOSTGARRENA** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari eta interesatuei.

Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ACUERDA**

**PRIMERO.**- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa Cubiertas Pagola, S.L., el contrato para la ejecución del proyecto de “Arreglo de cubierta y ventanales del edificio del Ferial” en Tolosa, en los siguientes términos:

\* Precio: 137.366,58 € (IVA excluido)

\* Plazo de ejecución: 3 meses a contar desde la firma del contrato.

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en el informe emitido por el técnico municipal.

**SEGUNDO.**- Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

**TERCERO.**- Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

**CUARTO.**- Publicar la formalización del contrato en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

**QUINTO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los interesados.

### **8.- 47/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailtzak 47/2015 faktura zerrenda aurkeztu du; 352.657,77€-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 47/2015 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

.....

**1/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailtzak **1/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **18.276,66 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 1/2016 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Jose Luis Unanue Ugalde**